




**Plan
Estrategikoa
2024 - 2026**



PLAN ESTRATEGIKOA 2024 – 2026

Adsis Fundazioan egoera zaugarrian dauden pertsonetikiko konpromiso eta dedikazioan 30 urte betetzeko mugarrira hurbiltzen ari gara. Digitalizazioa oso arin ari da gizartea eraldatzen eta, aldaketa horri erantzuna emanez, antolamenduaren eraldaketa prozesu sakon batean murgildu gara. Plan estrategiko berri honek hiru hamarkada hauetan zehar eraiki dugun antolamendu-kultura aberatsari balioa ematea ahalbidetuko digu, eta bidezko gizarte, solidario eta inklusiboagoa eraikitzeko xedean, erakunde garrantzitsu eta eraginkorra izaten jarrai dezagun bermatuko digu.

Plan Estrategiko hau 2024ko apirilaren 24an onetsi zuen Adsis Fundazioko Patronatuak, eta Adsis Fundazioaren Urteko Jarduketa Planaren bitartez izango da eragingarri. Hala, haren jarduera eta kudeaketa arlo guztietan aplikatuko da:

- Gizarte Ekintzako programak
- Balioetan Oinarritutako Hezkuntza programa
- Garapenerako Lankidetzeta programa
- EquiMercado - Bidezko Merkataritza programa



Adsis Fundazioaren programa guztiei buruzko informazio gehiago duzu hemen: www.fundacionadsis.org



XEDEA

Aniztasuna balore moduan onartzen duen eta pertsona bakoitzak bere bizitzako proiektua garatzeko aukera duen **gizarte bidezkoago, solidarioago eta inklusiboagoa** eraikitzen dugu. Pertsona bakoitzaren aldaketa-gaitasunean sinesten dugu eta zaugarriekin konprometitzen gara hurbiltasunetik eta laguntzatik.



2026 RAKO IKUSPEGIA

Adsis Fundazioak modu efizienteagoan burutzen du zaugarritasun egoeran dauden pertsonen ondoan egon eta laguntzeko duen Xedea. Horretarako, emaitzak eta inpaktua hobetu ditu, ingurune berrietara egokitu da eta bere lanari buruzko jakin-arazpenak indartu ditu, antolamendu eta funtzionamenduko prozesu giltzarriak berrikusiz, egokituz eta digitalizatuz. Gainera, kontratatuen eta boluntarioen talentua zaindu eta garatzeko beharrezko baldintzak indartu ditu.

ADSIS FUNDAZIOAREN BALIOAK

- **Pertsona da erdigunea**

Pertsonarengan sinesten dugu, eta bere potentzial guztian. Giza duintasunarekiko errespetua eta emakume eta gizon bakoitzaren osoko garpena gure identitatearen zati dira.

- **Senidetasuna**

Pertsonak baldintzarik gabe onartzean oinarritutako harreman estilo bat den aldetik, senidetasuna sustatzen dugu, eta elkarrizketa, konfiantza eta konpromisoa erabiltzen ditugu horretarako.

- **Utopia eraldatzailea**

Mundu jasangarri, solidario eta berdintasunean oinarritutakoaren alde lan egiten dugu, tokiko gizarte eraldaketatik hasita.

- **Parte-hartzea**

Pertsona bakoitzak banako eta taldeko aldaketa prozesuetan duen erantzunkidetasuna bultzatzen dugu, bai eta talde eta sare lanean oinarritutako lankidetzak moduak ere.

- **Berdintasuna**

Edozelako indarkeria edo bazterkeriaren aurka egiten dugu lan, eta aukera berdintasunaren eta gizon eta emakumeen arteko tratu berdintasunaren alde.

- **Gardentasuna**

Garena eta egiten duguna erakutsi egiten dugu, gure ekintzaren eta kudeaketaren argitasunaren berri emanez.

1. LERRO ESTRATEGIKOA:

Pertsonen zaintza eta talentuaren garapena


- **Helburu nagusia**

Fundazioaren Xedea lortzeko, profesional eta boluntario taldeek euren lana ingurune jasangarri eta motibatzaile batean, euren talentua garatzeko aukera ematen dien ingurune batean, burutu dezaten beharrezko diren antolakuntza eta funtzionamendu baldintzak indartzea.

- **Helburu berezituak**

1.1. Pertsonen talentua zaindu eta garatzera zuzendutako plan eta prozedurak diseinatzea.

1.2. Fundazioaren antolamendu eta funtzionamendu globalaren eta tokikoaren egitura egokitzea, profesional eta boluntarioentzako jarduera-inguru jasangarri eta eraginkorrak errazteko.



2. LERRO ESTRATEGIKOA: Antolakuntza eta funtzionamendu prozesu giltzarriak hobetzea

- **Helburu nagusia**

Fundazioaren antolakuntza eta funtzionamendu prozesu giltzarriak aztertu eta sistematizatzea, eraginkortasuna eta efizientzia irabazteko; horretarako, digitalizazio estrategia bat garatuko da eta proiektuak hobetu eta inpaktua neurtzeko ebaluazio metodologia bat ezarriko da.

- **Helburu berezituak**

2.1. fundazioaren prozesu global eta tokikoak berridiseinatzea, eta sistema-mapa berri bat ezartzea, beharizan berriei erantzun dieten erreminta digitalak euskarritzat hartuta.

2.2. Programa eta proiektuen ebaluazio sistema eta metodoak hobetzea, ikaskuntza eta jardueraren emaitzak eta inpaktuak ikusten lagunduko dutenak.



3. LERRO ESTRATEGIKOA:

Ingurura egokitzea, kokapena eta kanpo komunikazioa

- **Helburu nagusia**

Kanpo-kokapen bat eraikitzea, globala eta tokikoa, Xede eta Balioekiko koherentea den mezu komun batean oinarritua, administrazio publiko eta pribatuekiko elkarrizketa eta lankidetzaz erraztuko duena, gizarte ingurunearen beharrez berriei erantzuteko, eta Fundazioaren oinarri soziala indartu eta zabaltzen lagunduko duena.

- **Helburu berezituak**

3.1. Mezu bateratu bat eraikitzea, Adsis Fundazioak bere jarduera-esparruen inguruarekiko eta xede dituen helburu eta kolektiboen errealitatearekiko duen jarrera islatuko duena.

3.2. Administrazio publikoekiko eta erakunde pribatuekiko elkarrizketa oinarri hartuta, aukerak identifikatzea, xede ditugun pertsona eta kolektiboen beharrez berriei erantzuna emango dieten proiektuak egokitu edo berriak diseinatzeko.

3.3. Funts-bilketarako estrategia bat garatzea, pertsona partikular, erakunde pribatu eta enpresei zuzendutakoa, gure Xedea erdiesteko haien kolaborazioa eta inplikazioa sustatzeko.





Fundación
adsis

www.fundacionadsis.org

